

Unitate didaktikoa I

ZER EGIN KONPOSTAREKIN? 1. atala

Hondakin organikoak ikastetxearen konpostagailuan edo etxolan kudeatu eta gero, konpostari erabilera emango diogu. Ikastetxe batzuetan baratzea badago eta kasu hauetan konposta lurra eta turbarekin nahasi beharko dugu. Baina, zer egin baratzerik ez badago? Lortutako konpostari irteera emango diogu jarduera honen bitartez.

Materialak

- Konposta
- Lurra edo turba
- Esne brikak edo botilak
- Artaziak
- Gometsak
- Koloretako zintak
- Letxuga plantelak
- Haziak aukeran



Urratsak

1. Esne brikak edo botilak garbiak ekarri jarduera hau egin ahal izateko.
2. Ekarrirako ontzia artaziekin moztu eta koloretako zinta eta gometsekin apaindu.
3. Lortutako konposta lurra edo turbarekin nahastu eta apaindutako ontzia bete.
4. Bertan letxuga plantela edo beste haziren bat landatu.

Zer gehiago?

Egindako ontziak etxera eraman daitezke edo gelan ipini. Hauek eremu ezberdinetan jarri daitezke (leiho ondoan, barrurago, itzaletan, kalean...) eta guztien ezberdintasunak aztertu.



Unidad didáctica 1

¿QUÉ HACER CON EL COMPOST? 1ª parte

Después de gestionar los residuos orgánicos en el compostador escolar, vamos a dar uso al compost. En algunos centros escolares existe huerta, por lo que mezclaremos el compost con turba o tierra para su uso. Pero, ¿qué hacer si no tenemos huerta? A través de esta actividad vamos a dar salida al compost obtenido.

Materiales

- Compost
- Tierra o turba
- Briks o botellas de leche
- Tijeras
- Pegatinas
- Cinta adhesiva de colores
- Plantel de lechugas
- Elección de semillas



Pasos

1. Traer briks y botellas de leche limpias para realizar esta actividad.
2. Recortar el envase con las tijeras y decorar con pegatinas y cinta adhesiva de colores.
3. Mezclar el compost con la turba o tierra y rellenar el envase decorado.
4. Plantar un plantel de lechuga o sembrar cualquier semilla que tengamos a mano.

¿Qué más podemos hacer?

Los envases decorados pueden colocarse en clase o llevarse a casa. En caso de colocarlos en clase, pueden ponerse en diferentes puntos (cerca de la ventana, a la sombra, en la calle...) y analizar la diferencia de crecimiento de cada una.

